

Joseba Urzelai Agirre gogoan (1963-2022)

— — — — —
IÑIGO ERRASTI

Gaitza da hil berri den lankide bati buruz idaztea. Goizegi hil dela sentitzen dugunean, batez ere. Eta gaitzagoa, gainera, konturatuz gero lankide hutsa baino gehiago zela hura. Azken batean, egunero joaten gara bulegora, urteetan, eta, inoiz, gertatzen zaigu harreman berezia egitea laneko batzuekin. Gure lagun direnak baino sarriago ikusten ditugu, eta tratu handiagoa izaten dugu haiekin, esaterako, senideekin baino. Laguntzat neukan, beraz, Joseba, ez bakarrik lankidetzat.

Batera izendatu gintuzten karrerako funtzionario Bizkaiko Foru Aldundian, 2006ko ekainean. Bera, baina, askoz lehenagotik zebilen bertan lanean. Egia esateko, hainbat urtez jarduna zen Aldundian itzultzaile, eta baita Jaurlaritzan ere. Aurretik, euskara irakasten aritua zen, Bilbo Zaharra euskaltegian. Itzultzaile bikaina izan arren, sen finekoa, terminologo legez ezagutu dut nik urte hauetan guztietan. Eta sarri eskertu izan dut Joseba zen moduko terminologo

bikaina izatea lantaldean, askotan ez baikara konturatzen zer garrantzitsua den itzultzaileontzat gurea baino ikusgaitzagoa den lankide horien lana. Berari ere esan nion behin baino gehiagotan.

Ez dezadan, baina, lar barbarik egin neure buruaz. Izan ere, horixe zuen Josebak ezaugarri: diskrezioa. Nahiko nuke beste batek ere aukera izatea, hiltzen naizenean, niri buruz esateko berari buruz zalantza barrik esan daitekeena, hau da, pertsona ona zela, diskrezio eta edukazio handiko gizona. Euren burua sekula gehiegi nabarmendu ez eta hala ere isil-isilik marka ezabaezina uzten dutenetarikoa.

Euskararekikoaz gainera, bazuen Josebak beste zaletasun bat, bizi-bizia: argazkigintza. Azken urteetan, ordu asko eskaini zion arte horri, eta erakusketaren bat edo beste egitera ere iritsi zen. Getxophoto jaialdian aurkeztu zuen bat, eta hartarako prestaturiko testu bat jarri dizuet jarraian, iruditzen baitzait

oso ondo adierazten duela Josebaren izaera, haren berbetako tonua:

Arrotz hurkoak

Joseba naiz, 57 urte ditut, eta emaztearekin eta bi seme-alabekin bizi naiz. Ezohiko ezer ez. Familia-inguruaren argazkiak egiten ditut; ia egunero, mikrokosmos intimo eta hurbileko hori arakatzen dut argazki-kameraren laguntzarekin. Nortasuna, memoria, herentziaren pisua eta gisa horretako kontuak azertu nahi ditut. Eta, ezer baino areago, arrakalak bilatzen ditut, harridura, erabat azaldu ezin ditugun uneek eragiten diguten bat-bateko asaldua.

Familiako argazkiak gure oroitzapenen lekukoak dira, eta oroitzapen horien gainean finkaturik eraikitzen dugu gure identitatea, Blade Runner filmeko erreplikanteekin gertatzen zen bezala. Hemen bildu ditudan irudiek ideia hori dute ardatz: jostagarri moduko fikzio bat osatzen dute, aire klasikoko erretratuak, etxeko paisaiaren xehetasunak nahiz familiaren albumetik ateratako argazkiak baliatuz, eta nahita nahasten dituzte denborak eta identitateak. Lan hau, finean, oroitzapenak interpretatzeko ahalegina da, gertukoenei buruz dakigunaren eta ez dakigunaren arteko muga lausoa zeharkatzeko saiakera.

Nahi duenak Interneten topa ditzake erraz Josebak erakusketa horretarako aukeratu zituen argazki-erretratuak, baina, dena dela, hona ekarri dizuegu haren argazkiatariko bat, berak kutunen zuen zaletasunaren erakusgarri.



Resumen

Joseba Urzelai Agirre (1963), traductor y miembro de EIZIE, fue profesor de euskera durante varios años, más tarde traductor en el Gobierno Vasco, y, finalmente, traductor, terminólogo y corrector de la Diputación Foral de Bizkaia. Joseba falleció en agosto del año pasado, y su colega y amigo Iñigo Errasti le rinde homenaje en estas páginas, en las que relata, entre otras cosas, la afición de Joseba por la fotografía, e incluye un texto que su amigo escribió para glorificar las fotografías de una de sus exposiciones, con el que ilustra su personalidad.

Résumé

Le traducteur et membre d'EIZIE est né en 1963. Après avoir enseigné la langue basque, il a travaillé comme traducteur au sein du Gouvernement basque pendant plusieurs années, puis comme traducteur, terminologue et correcteur à la Députation forale de Biscaye. Joseba nous a quittés l'été dernier ; nous avons recueilli ici le témoignage de son collègue et ami Iñigo Errasti, qui a tenu à évoquer une autre passion de Joseba : la photo. Vous trouverez également un texte de Joseba, écrit à l'occasion d'une exposition de ses photos, et qui témoigne de sa personnalité.

Abstract

Translator and EIZIE member Joseba Urzelai Agirre was born in 1963. First a Basque teacher, he then worked as a translator for the Basque Government for several years, after which he started working for the Provincial Council of Biscay as a translator, terminologist and proofreader. Joseba passed away last summer, and we here present the words of his friend and colleague, Iñigo Errasti. Among other things, Errasti wished to share with *Senex* another of Joseba's hobbies, photography, and we therefore include a text composed by Joseba for an exhibition of his photographs, as a window to his character.